

# DESBERDINTASUNAK baztertuz GARAPENA lortu

Lan Koadernoa

Lehen Hezkuntza

3-4



# 1. Jarduera Desberdintasunen bila

GALDETU HIRU GELATAN
ZENBAT NESKA ETA ZENBAT MUTIL DAGOEN.
IDATZI DATUAK TAULA HURRENGO TAULAN.

| GELA | NESKAK | MUTILAK | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| GUZTIRA | | | |



HEGOALDEKO ESKOLA BATEKO DATUAK IRAKURRI.
ZURE ESKOLAREKIN KONPARATUZ,
ZEINTZUK DIRA DESBERDINTASUNAK?

| GELA | NESKAK | MUTILAK | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| 1. LEHEN HEZKUNTZA | 11 | 35 | 46 |
| 2. LEHEN HEZKUNTZA | 9 | 36 | 45 |
| 3. LEHEN HEZKUNTZA | 7 | 33 | 40 |
| GUZTIRA | 27 | 104 | 131 |





## 2. Jarduera: Zergatiak bereizten

# GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPEN UNIBERTSALA

## 26. artikulua

- **Gizaki orok** du heziketa jasotzeko eskubidea. Heziketa hori **doakoa** izan behar da, behinik behin oinarrizko eta funtsezko heziketari dagokionez. Oinarrizko heziketa **derrigorrezkoa** izango da.
- **Elkar ulertzea, tolerantzia eta adiskidetasuna** sustatuko ditu herri guztien artean, baita talde etniko nahiz erlijiosoen kasuan ere.
- **Gurasoek lehentasunezko eskubidea** edukiko dute beren seme-alabei eskaini nahi dieten heziketa eredua **aukeratzeko**.



# HEZKUNTZAREN BIDEZKO ZORRA

Iparraldeko zenbait herrik, besteak beste Espainiar Estatuak, kanpo zorra hezkuntzaren truke aldatzeko esperientzia txikiak gauzatu dituzte azken urteotan. Iparraldeko herriak Hegoaldekoari kanpo zorragatik kobratuko liokeen diru kopuruaren zati bat ematen dio, eta Hegoaldeko herriak hezkuntzaren alde inbertitzen du diru kopuru hori. Horrela, Hegoaldeko herriak Hezkuntzara bideratzen duen zenbatekoa handitzen da.

Espainiar Estatuak proiektu hau burutu du Hegoamerikako hainbat herrirekin: Argentina, Ekuatore, Nikaragua, Honduras, eta El Salvador. 2006 urtean zehar Bolibia, Guatemala, Paraguay eta Peru.









# 3. Jarduera: Premia bati erantzunez

HIZKI-ZENBAKIA KONTUAN HARTUZ, IDATZI DAGOKION LEKUAN HONDURASEKO 7 DEPARTAMENTUREN IZENA.

**YORO - COLÓN - VALLE - CORTÉS - OLANCHO - INTIBUCA - ATLÁNTIDA**




IKURRA BAKOITZAREN ORDEZ
DAGOKION HIZKIA IDATZI ETA JAKINGO DUZU
NORK ERAMATEN DUEN AURRERA PROIEKTUA.










# Otoitza egiteko



1 Eskerrik asko, Jainko Aita, sortu gaituzulako.
Zuk egin dituzu gizakiak, gizonak eta emakumeak.
Elkar errespetatuz eta elkar maitez bizi gaitezen nahi duzu.
Eskerrik asko eskolak eta irakasleak eman dizkiguzulako.
Eskerrik asko ikasteko adimena eman diguzulako.
Lagun iezaguzu ikasten, etorkizunerako ongi prestatzen.
Ikaskideen artean elkar laguntzen jakin dezagula.
Ikasketa-materiala ongi zaintzen jakin dezagula
eta behar dutenekin partekatzen ere bai.





2 Jesus, munduko neska-mutil askok ezin dute ikasi.
Hegoaldeko herrialdeetan ikastetxe gutxi dago,
haurrek ikasketak eta lana uztartu behar dituzte,
eta oso eskolako material gutxi dute.
Jesus, lagun iezaguzu txirotasunaren kate hau hausten.
Herrialde hauetako agintarien alde eskatzen dizugu,
hezkuntzan diru gehiago erabil dezaten eta gutxiago gerran.

3 Jesus, zuk irakatsi diguzu maitasunaren agindua,
baina gizakiok ez diogu elkarri begirunerik erakusten:
elkar iraintzen dugu, elkar jotzen dugu.
Gizonezkoek emakumezkoak jotzen dituzte
eta beren seme-alabek negar egiten dute.
Jesus, erakuts iezaguzu elkar maitatzen,
arazoak hitz eginez, begirunez, konpontzen.





4 Maria, sufritzen dutenen ama.
Zuk ezagutzen duzu beren senarrek jotzen dituztelako
negar egiten duten emakumeen mina.
Ez dugu emakumeek gaizki pasatzen jarrai dezaten nahi.
Eman iezaguzu emakumeei laguntzeko bihotz eskuzabala.

**PROCLADE**
San Francisco, 12A-3º
48003 - BILBAO
94 416 69 31
mision-bi@terra.es

Laguntzen du:

bbk